



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

—:	11 Urtea	1929'ko Uztaila	127 Zenbakia.	:—
----	----------	-----------------	---------------	----

Brindistar Lorentzo Deuna



Lorentzo munduaren argia

MBROSIO deunak dionez, bere amaren efaietan doai eta esker bereziaz apaintzen ditu Jainkoak mundua zeruratzeko sortzen dituan gizonak. Auxe gertatu zala gure santuarekin, bereala ikusiko dezu.

1559'ko Uztailaren 22'nean sortu zan Lorentzo deuna Brindis deritzayon uri aundi eta edefean. Guillermo Rossi eta Isabel Masela izan ziran bere gurasoak, biak aberatsak eta kristau zintzoak. Askotan bere ama gelan ilunpean zegoela, izpi dizdiratsuak ateratzen ziran bere efaietatik eta gela guztia argi santuaz betetzen zuan.

Onela adierazi zion zeruak, munduaren argia izango zala bere semea eta gizon asko zeruratuko zituela bere bitartez.

Jaio zan, ba, gure deuna eta bataioan Julio Cesafen izena ipiñi zioten. Nunbait zeruak ala nai izan zuan, bada Cesafen eran mundu guztia Jaungoikoa-
rentzat irabazi bear zuan. Eztira esateko aurtxo onekin Jainkoak egin zituan gauza afigafiak. Ara nola idazten zion bere aitag Venezian bizi zan bere osaba apai-

zari: «Jakiñean egon bear dezu nola aurtxo bat eman didan zeruak eta alako gauzak egin ditu berarekin, enaizela ausartzen esatea mundu ontako edo zeruko auren bat ote dan.»

Izlari ospetsua

Lau urte bete zituen bezin laister, prailen jantzia eskatu zien bere gurasoi, eta oiek bereala lekaide-etxera eramana, praila zintzo ta onbidetsu baten mendean ipiñi zuten. Jainkoak emandako doai eder eta bereziak, bereala ezagutu zituzten lekaide guztiak.

Meza laguntzea zan bere atseginik aundiena eta lan ontan ikusten zuten guztiak afiturik gelditzen ziran. Itxikietatik ain pozik egoten dana meza laguntzen, ezta afitzekoa gero meza ematean sei edo zortzi ordu egotea!

Elizan egiten ziran itzaldietara gogoz joaten zan eta besteak esandako gauza guztiak bereala buruz artzen zituan. Askotan gauza berezi eta ederenak idazten zituan eta gero mutil sail batzuek bereganaturik, pralez jantzi eta tontofen batean jarita, sermolariak bezela itz egiten zien eta aien biotzak berotzen zituan.

Laister zabaldu zan beñere ikusi etzan doai ori eta ez aurfak bakarik, praila eta jakintsu ber-berak ere joaten zitzaizkion entzutera. Ofetarako itzaldi batzuek ematen zizkion bere erakusleak, baita bereala ikasi ere Lorenzok, baña askotan ez ua, baizik Jainkoak ematen zizkion itzak esaten zituan.

Brindisko Eliz-nagusian

Sei urte bakarik zituan. Lorenzo deunaz bafeatu zana, bere begiekin ikusi nairik Brindis'ko Arzobispoak, lekaide etxera joan zan bein eta praila egiten ari zan itzalditxo aditu zuanian, guztiz afiturik besarkatu zuan izlari gaztetxo ura eta bere elizan itzaldiak egiteko eskubidea eman zion. Afezkero ala egin zuan askotan. Bi prailak laguntzen zioten eliz nagusira eta Arzobispoak itz egingo balu bezela, deitzen zuten ezkilak, denak etofi zitezen eta gizon asko joaten ziran aurtxo aien itzaldia entzutera.

Bere aita iltzen da

Amalau urte zituala il zan bere aita eta eztago esan beafik asko naigabetu zala bere biotza. Bere amak orduan etxera ekafi nai izan zuan bere lanetan zer-bait lagundu zizayon, baña gure deunak, munduak dituen gaizbidetatik igesi naiez, bere etxe ta efa uztea erabaki zuan.

Bertako bi praila adierazi zien asmo ura, eta oiek guztiz naigabetuta ere, ontzat artu zuten erabaki ura eta agur xamur bat egin ondoren, bidetari eman zion gure gazteak, prailen jantzia utzi gabe.

Kaputxinoen soñekoa jazten du

Nunbait gure Ordenako aukeratuta zeukan zeruak gazte ura. Askotan adierazi zituan Lorentzok Kaputxino izateko gogo aundiak eta aurfetik oien biziera sayatu nai izan zuan.

Oso lo gutxi egiten zuan eta beti lur gañean, bere soñekoak erantzi gabe, Kaputxinoak egiten duten bezela. Gabero gogor zigorkatzen zuan bere gorputza

aragi guztiak ufatu arte, astero iru egunetan barau gogofa gordetzen zuan, ogia eta ura utsik janaz: beste egunetan ere, ogia, barazki eta fruta batzuk besterik etzituan jaten, ardoa befiz beñere ez. Onela sayatu ondoren Erpuru Abari gure soñeko santua eskatu zion eta 1575'ko Otsailaren 18'ean Veronan jantzi zuan Kaputxinoen soñekoa, 16 urte zituela. Gure artean oi dan bezela aldatu zioten izena, Lorentzorena ipiñiaz.



Brindisiko Lorentzo Santua, Kaputxinoa, Belgrado'ko guduan (E. Manno)

Jakintsu aundia

Bederatzi izkuntza zekizkin Lorentzo deunak, italiano, erdera, prantsesa, alemana, latina, griego, hebreo, kaldeo, siriako; eta bere izkuntza bezin efaz egiten zituan izkuntza guzti oiek.

Buruz zekian Liburu Santu guztia eta igauza afigafia! Testamentu zafa eta berfiko liburuetatik esaeren bat aditzen zuanian, bereala esaten zuan ze liburuetan zegoan eta zenbatgañen buruan.

Zezio asko izan zituan judutafekin eta ain ederki ibiltzen zuan beren izkuntza, jatofiz judutafa zala uste zuten askok. Liburu Santua galdu izan bazan ere, berak hebreoz idaz-zetakela, zioten, afen jakinduria ezagutu zutenak.

Bereala zabaldu zan bere jakintasuna eta garai artan zan Aita S. VII Clementek Efoman bizi ziran judutafai predikatzeko agindu zion Lorentzo deunari.

Nagusia

Oso gaztea zalarik, Veneziaoko lekaide etxean nagusi egin zuten. 1590'gafen urtean, befiz, Toskanako Erpurua izan zan. Ain gogofa izan zana bere gorputzakin, ama batek bezin gozo ta maiteki gorde zuan bere artaldea. Onelako gizon bikaina ikusi zutenian 1596'gafen urtean Efoman elkartu ziran praileak, Ordena guztiko buru edo nagusi egin zuten. Ordena guztiko etxeak ikusi zituan, beti oñez ibiliaz: etxe guztietan gure biziera gogofa eta misiotako gogo biziak bitu zituan. Bere garaian gure ordena bestien gañean egendu zan jakinduri eta onbideetan: bere mendekoak izan ziran Sigmaringako Fidel deuna, Leonisako Jose eta Montegranarioko Serafin santua.

(Jařaitzeko)

Tolosa'r Marzelino A.



Udako eguzkiaren printz beroak zaurituta, lore eder bat zimel-tzen ari zan. ¡Lore gaixoa!

Odei bat igaro zan bere gañetik.

—Odeia, nora jakin gabe goiko zeru urdiñean txifistaka zoazen odei txuri-ariña, ur tanta batzuek ixuri nere gain; ai, egafiz iltzera noa: biali zadazu, afen, bizia..!

—Ene lore edefa! Ufuti diran adiskide batzuei zgur egitera noa; ezin naiteke gelditu; beste egun batean itzuliko naiz. Eta aizeak eraginda iges egin zuan odeiak.

Ufengo egun sentian odeia arin ta alai etofi zan; baño, berandu: lore edefa zimel-zimurfa, bizirik gabe baizegon!

*
*
*

Zoritxarak zaurituta dauden biotz asko, mesede baten bila gugana etortzen dira; guk, ajolikabe, biarko uzten degu gaur egin bear zan mesedea.

Ufengo egunean mesedea egin nai degu, baño berandu: ia zauria ezin baiditeke sendatu.

Intzar Lorenzo A.

1929 - 1-29

Udaberi goiza

Zoragarizko arginabara jaiotzean
Jauna'k begiak iriki dizkit goiz-goizean,
gau otzamarak intz ospil eta txit lodia
leiar gañetan nola utzi duan ikusiaz;
eta ortzian urdintasuna nausitzeaz
epeltasunak intz lodiena metutzean
pozez jaiki naz liluragari dan goizeko
gauza politok egunabarez ikusteko.

Ta sortaldeko mendizafaren gibeletik
eguzki izpiak ortzi-sapaira disdis dagi
ipar-aizedun giro atsegin ta gozoa
iragariaz goiznabarean goi-margoak.

A, ta euzkiak pitxizko bere printz ederaz,
urzeko musuz, mendi-galufa goritzean
an-emen poza, txorotxioa, nabaitzen da
baso-zuaitzen adar intzatu tartietan.

Geri sendodun zuaitz tantaien orpo-orpoan
aldizka «tan-tan» ospil jausiaz intz-tantoak
gau laburlean intzez bustirik makurtuak
euki dituzte txorten zuridun lilitxuak.

Baña... euzkia mendi-atzetik gorutz doa
ta ozkarbitik banatutzean printz beroak
intz trinko aiek deuseztu ditu bazteretan
liliak txutik ta apain jafiaz basoetan.

Bai, jaiki dira lili etziñak lerden-lerden
ta mitxeleta-erleak antxe daude jaten...
ta ipar-aizedun giro gozoa nausitzean
artzai-txistuen ots zoli ua nabaitzen da...


Ta ardi otzanak lizardipeco itufian
ur gozo ospila edaten dauden bitartian,
artzai mutila geldiro joan da lar-tartera
umez dagoan txori-kabia ikertzera.

Eguzkiaren txingar biziak indartzean
basetxe baten atalondora urbildu naz
ta kerizpean mutikotxo bat atorutsik
txakur txuriaz jolasten dakust paramufi...

Ta atalondoko intxaurondoen itzaletik
likurta gozoz bazterak eder ikusirik
Jaungoikoaren neurfigabeko altesunaz
liluratua gelditu naz
sinismenetan sendotua...

Zubigar

Pasai Antxo.





Katoliko berri bat.

ANDRE SIGRID UNDSET

Nobel izeneko sari edo premio aundia irabazitakoa

Andre au 1882'gaŕen urtean jaio zan. Berak lenbizi egindako gertairudia (novela) 1907'koa da.

1924'ean katoliko egiteko, Lutero'ren erlijioa utzirik lenengo jaunartze edo komunioa egin zuen.

Suecia'ko Efege-Akademian Nobel izena duan izkelerti edo literaturako sari izen aundikoa 1928'an eman dio.

Onen bitartez bere izena mundu guzira zabaldu da.

Beafekoa da eŕi guzietako katolikoak Noruega'ko katolikoak artu duten pozaldian lagundu ta andre Undset ezagutzea.

Andre Undset idazle edo liburu-eskribitzaŕe bikaña da; bere lanaren gogorako balioa ezin ukatuzkoa da, bere izaera batean noruegataŕa ta mundutaŕa da. Bere gertairudi edo nobeletan betiko andrea bere samurtasun, maitetasun ta laguntza-beafakin, nora ezean, ofuntz, lege gabe mugitzen diranean emakumea erori-azten duten oiekin.

Emakumea ezta emakume, ezpada biotza eman ta berak maite izan ta bere laguntza danarekin batean bizia eman dezakenean.

Asmo au ezdaukan emakume baten izatea bizitza moztu bat da, ta bere buuruari bizia kentzeko bide egokia da berez, ta asmo onen arauera bizitzen lagundu ez ezik, erorbidean eskua luzatzen dion gizarte edo soziedadea gizarte koloa da, azkenekotan dago.

Andre Undset'ek au guzia ezagutu ta bere gertairudietan (noveletan) naiz lengo gertaerako, naiz oraingoak gaitzat dituztenetan azaltzen du.

Baño etziteken eriotzara zeraman bide onetara jafi. *Fenny* (1911'ko gertairudi edo nobela) ta *Kristin Lavransdatter* (1920'ko gertairudia); bata ogeigaŕen mendean eta bestea amalauagaŕenean bizi dira. Jenny'k bere buuruari bizia kentzen dio, baño Kristin izufiduna zaitzen iltzen da. 1911-1920'rañoko³ tarte ofetan emakumeari lagundu nai dion gizarte edo soziedadeak bere oiturak zuzentzeko lege bat bear zuala ezagutu du, baita ere protestanteak baño lenagoko Noruega'ko elizan, aulak izan ziran emakumeak beren utsen barkapena iritxi, bere

buruak garbitu, ta uts oiek ordaindu zezakela. Au lenengo denboretara urbilduaz katoliko izatera gerturatzea zan. Undset andreak etzuan inoiz ere kristautasun protestantean gelditzeko asmorik izan. Berak ziñezketasun edo paganismotik Eliza katolikora etori zala esateko oitura dauka.

Katoliko egin ondoan gertairudi edo nobelak egiten jaraitu du, baño, anglicano (protestante) izan ta gero apaiz katoliko egin zan Hugo Benson izen aundikoaren liburu *Kristo Elizan* ta *Kristo'ren Adiskidantza* bereizkuntzara itzuli ditu. Berak Noruega'n katolikoak daukagun asteroko bakar *Sankt Olav*-en idazten du. Noruega'n zabalduena dan izparingi edo periodikuan ezdabaida ospatu bat izan du Trondhjem'go gotzai (obispo) luterotafarekin eta Oslo'ko artzai (protestanteen artean, gure apaiza bezelakoa) batekin.

Orain beñero *Santutasuna Gaurko Egunean* izenaren azpian 1907'an ildako A. Karlos Schilling Noruega'tar prailearen irudia, ta langile izan ondoan Klara' tar moja egin zan Margarita Sinclair (1900-1925) Eskozia'tafaren irudia bere luma edefaz egunerako paper aundi batean azaldu zituan.

Undset andrearen goi-maitetasun (karidadea) ezin aitzukoa da. Urte guzian eramaten dioten kofeoan eskeko idazki edo kartak artzen ditu. Azkeneko egun aurretan 1.500 baño gei ago artu ditu, ta guziaz erantzun die.

Baño Nobel izeneko saria (miloi bat pezeta) zertarako izan bear dan erabakirikdago. Undset andreak ezta ezer beretzat gordetzen. Izparingi edo periodikoakdiotenez, idazleen (eskribitzaleen) Alkartasunak alkari laguntzeko daukaten kutxa edo kajarentzat 100.000 pezeta eman ditu. 500.000 pezeta, bere obari edo eñentarekin bere etxean aur ezindu edo erdi-ezinduren bat daukaten gurasoai emateko utzi ditu. Noruegatarei asko erasan die egite eder onek. Berak dionez, sendi edo familiari laguntzeko, gurasoai bere umetxoa ta umeai bere gurasoak gordetzeko egin omen du au.

Andre Undset'ek egia ta goi-maitetasun edo karidadeari laguntzeko ematea, bere biotz ean Jaunaganako duan maitetasun sakon-indartsuari zor zaio. Andre Undset katoliko beroa da.

Bera dagon lekuan eliza izan ezkerro egunero Jauna artzen du. Ta Elizaren jai aundi guzietan uruti daukan bere pafokira juateko trena artzen du. Atsegin izaten zaio bere etxean apaizak artzea bere Lillehemmer'ko etxean: bere areto edo saloia eliza biurtzen da, inguruetako katolikoak an Meza Santua entzun dezaket, eta gero guziaz gosaltzera ematen die. Egunero Eñosarioa esaten du edo beztela Amabirjiñaren Eliz-Eñezu txikia eta gogarte edo meditazioa egiten du.

Amabirjiñari dion alaba-zaletasunaren ager-gai bat nai al dezute?

Nobel izeneko saria artzera Stockholmo'ra juan zanean, Oslo'n jai aundiak egin zizkioten. Eskeñi zioten bazkarian Gubernuko Burua, aldun edo diputaduen Burua, idazleen Alkartasuneko Burua, ta beste Noruega'tar izen aundiko batzuk izan ziran. Bazkari ortan idazleen Alkartasuneko Buruak eñamuzko burestun edo koro bat bere buruaren gañean jafi zion. Uñengo egunean Abendu'ko 8'a zan, Pekaturik-gabeko Amabirjiñaren Sortzea'ren jaian, Domingo Santuaren Elizako Amabirjiñaren aldarean, berak utzi zuan koro ori.

Lero auek bukatzean nere lanola edo ofizinako atean jotzen du norbaitek. Andre txiki-txiki, ile-zuri bat sartzen da ni nagon lekuan. Ba-ditu irurugei ta amairu urte, bere dotriña-ikaskai edo lezioa ematera eldu da: 1929'gafen urtean, Jainkoa lagun, protestanteen erlijio utzi ta Eliza Katolikoan artua izango da. Andre xar auxe Sigrid Undset'en ama da. Ezta txikia bere alabaren poza.

Zoruna...?

T. Perurena'ren itzak.

ELDUAYEN' A.

mf.

¡Zo-ru-na Zo-ru - na! Ez aiz be-ko ogasu - - na

Aurtza-ro - ko i - fi - - ak Nega-ña-kin na-si - - ak O-ña-ze ots ba-ten

cresc.

Ge-ra lu-di-ra el - - tzen. Gaz-te-ak, Bu-la-ñan

f

Gu-re bi-o-tza su - tan Maita-su-naren ga-ña ordun da-ma-gu inda-

8.ª

fa Ez da, ez, A! bañan Zo-ru - na atsegi-ñe - - - tan

Ba-da-tor ne-gu - a itzaltzen gu-re su - - - a

Zartzaro - a, Oroi - - tza, Garbaia, E-ri-o tza ja, ziñez, Zoru-na,

pp
Ez aiz bekoogasu - na.



Pakea Txina'n.



URE «ZERUKO ARGIA'n» zenbait ilabete dirala, idatzi nuan Txina guzia lapuñez josirik zegoela ta etzegoela emen pakerik. Orduan egia esan nuen.

Baña beriz ere egia zor diet ene irakurlei, ta esan bear det gauzak asko aldatuz dijoaztela ta pakea badatořela Txina'ra laster xamar; eta beřiro gudariak beren artean guda ta buřuka ez sortzera, geroago ta pake edeřagoa izango degula.

Emen *Kansu*'ko probintzi onetan garbiketa edeřa egin dute gudariak lapuřekin. Ona nola.

Alderdi onetan bazebilen aspalditik iru miła edo geiagoko lapuřen aldra bat. Armak ere bazi-tuzten berekin naiko onak.

Imakue deritzaion eřian, emendik amabost bat kilometro, baturik zeuden eřiaren jabe zirela ta eřian bizilekua jaři zutela.

Jende guzia bilduřez bete-beterik zebilen; eta etzan iñor ausartzen uritik kanpora ateratzen eta are gutxiago bide egitera edo bideetatik ibiltzera.

Ořelako batean, badatoz milaka gudariak ixil-ixilik, arma on-onak, ametrařak eta kañonak dituztela.

Lendik ere baziran emen urian gudariak; baña gutxi ziran, lapuřak baño arma oberik ere etzuten ta ola etziran ausartzen lapuřen aurka joatera.

Gudari etoři beřiak laster-lasterka igaro ziran uritik ta lapuřen gana, *Imakue* aldera jo zuten zuzen-zuzen.

Aiek etzuten gudariak bazetozelako beřirik ta patxada edeřean zeuden beren lekuetan.

Baña, ořa, goizeko lauretan, bat-batean, asten dira entzuten ametrařaren ta kañoien soñu ikaragafia.

Alde guzietatik gudariz inguraturik zeuden. Iñolaz ere etzezaketan iges egin. Beren armak ere etziran gudarienak bezin onak; ta ořa or, eriotza beren gañean; besterik etzuten.

Ilkintza aundia egin zuten gudariak. Uřengo egunean, *Imakue* eřian etzan iñor agiri, gudarien batzuek baizik.

Orainik eun lapur atxitu zituzten gudariak; il zituztenak ordea zeinbat izan ziran eztakigu. Asko, jendeak dionez.

Amabi lapurén eriotza.

Eun lapur aiek onera ekafi zituzten iltzeko. Nik amabi ikusi nituan iltzen. Ai! nolako eriotza izan zuten gero doakabe aiek,! ¡Samiñagorik...! Iñunagorik...! zorigaiztokoagorik...!!

Eguerdiko ordu bata inguruan, eraman zituzten amabiak gure mixio-etxearen ondoan dagoen zelaira.

Antxe, efi guzia bildurik zegoela, guzien aurrean, gudari batzuek laban aundi ta zofotzez moztu zien amabiei banan banan lepoa.

Bereala jantziak ere kendu zizkien ta ofela, biñosik, luñean bota-ta, utzi zituzten ordu bi edo iruz.

Geroxeago etofi ziran lau bost gizon; eta, bi sokaz ankak lotu-ta, eraman zituzten gorputziñak banan banan ařastaka urbil zegoen eřeten batera.

Bertara bota zituzten; luñez erdi estali ta an gelditu ziran lenago ainbat bildur ematen zuten lapurak. Gero gauez txakurak eta otsoak eta egazti ařapakariak etoriko ziran aiek jatara.



Lapura burua mozturik.

Ama baten negařa.

Orduan bertan, ildako lapuratariko baten ama etofi zan asto baten gañean. Semea, luñean zetzala, dana odolez loitua, mingaña aotik kanpora atera-ta zuela, ikusi bazuan ikusi, asi zan negařez, aioska ta oiuka, amofaturik balego bezela ankanz ta eskuz luřa jotzen zuela.

Egia esateko, min aundia ematen zidan biotzean ama ařen negařak.

Baña bai ta ere, nere artean itz oek esaten nituan: «Zere semea obe azi bazenu, etzan lapuratar joango ta etzuen ere ain azken txara izango.»

Amak eskatu zuen semearen gorputziñ beren eřira eramateko ta etxeoak nai zuten lekuan lurperatzeko. Eta eman zioten baimena.

Egun artan sartu zitzaion jendeari lapuratar joateko bildur pizka bat baño ere geiago.

Pedro Mari amerikanoa

Azkeneko gure egonaldiaren ondotik bildur nintzen Pedro Marik betiko lañeak efe ote zituen gurekin. Baño etzan ala gertatu zorionez.

Biramonean berak bialdu zigun mandatua, afatsaldean ostatura joateko ta antxe itzegingo genuela.

Bezpera ondoren laxter joan giñan, baño gu orduko bera antxe zegoan.

Alkafi diosala egin orduko Pedro Mari bera auferatu zan Joxe Antoni esatera:

Atzo esan zenidan, zuk esana ez aztutzeko. Eta nik itzezin genuen guzia gogoraturik, oartu naiz nere esanari iges egin zeniola.

Nik esan nizun ongi aski; erlijio guzietan siñisten dutela Jaungoiko ta inpernuan, eta geroztik berdin dela aietako edozein.

—Eztet uste ori esan zenuenik; baño tira.. ta zer?

—Ta zer? Ori erantzun etzenezakiolako iges egin zenuela.

—Ori uste izan ba-dezu, oso oker zaude, Pedro Mari. Aristian esan dituzun itz gutxitan, uts asko esan dituzu-ta.

—¿Zertan?

—Añena, Erlijio guzietan siñisten dutela Jaungoiko ta inpernua. Ori ezta egia. Zer Jaungoiko da Maoma'tar edo mairuak, Buda'tafak, Sciacca'fak eta beste ofelako askok jainkotzat daukatena? Uste al zendun gure Jaungoiko bera daukatela jainkotzat?

—¿Zer ba? Jaungoiko bat besterik eztela eztezue, ba, katolikoak esaten?

—Orixe esaten degu ta ori siñisten ere degu. Ezta Jaungoiko egi azko bat besterik. Baño, zuk ez al dakizu Jaungoikotzat artu izan dutela gizonak eguzkia, ilargia, sugeak, uñe, zilar, ari ta zurezko edozein iduri tzar, gizonak berak egindakoak, eta baita baratxuri ta tipulak ere? Ofenbeste ikusi dezun ofek etziñakin ori?

—Ori entzun izan dut, baño uste nuen gauza oiek jainkotzat artzen duenik luñean etzala gaugero.

—Begizu, ba; oraindik miloika gizon-emakume, gauza oien antzeko asko Jaungoikotzat dauzkatena, ba-daude luñean.

—Nik Amerikan ezagutu ditut ba judu ta Protestante asko ta oiek katolikoan Jaungoiko bera daukatela jainkotzat eztidazu beintzat ukatuko.

—¡A! egia. Baño judu ta protestanteakin eztira erlijio guziak bukatzen.

—Ala ba-da ere, ni judu edo protestante izan nai ba-dut, zer zaio iñori?

Pedro Marik itz oiek agotik atera zituen bezin agudo, ostatu guzia betetzen zuen giza-salaren erditik atera zan ots bat oiuka:

—«Judu edera aiz bai.»

Joxe Anton'ek itz oiek ez entzuna egiñez, esan zion:

—Baño, D. Pedro Mari, ez al dakizu zuk juduak Jaungoikoaren Seme, Jesukristoren etsai dirala ta gurasoen gofotoa gaurko juduen biotzean ura gurutzean josi zutenetan bezin beltza dela?

—Zer esaten ari zera, txoraa? Jesukristo oraindik jaiotzeko dagola uste due-ta?


—D. Pedro Mari, ezer eztakizu ta guziak nasten dituzu. Juduak, Mesias'en zai daude, baño beren biotzean duten gofotorik beltzena, egiazko Mesias Jesukristo gure Jaunari diotela. Berak eztute ba eza-gutu nai Jesukristo Jaungoikoaren Semetzat, beren guraso Aren il-tzaleak baño geiago. Ta oiekin bat egiten ba-zera, berdin emango al dizu Jesukristok zerua?

Gure gizonak txaloka asi zitzaizkion Joxe Anton'i. Onek ixilduazi zituneko asi nai zun Pedro Marik zerbait erantzuten. Baño suak arturik gure gizonak oiuka asi ziran esaten:

«Ixildu dedila judu ori, bestela leiotik aterako da.»


Joxe Anton'ek ixildu azi nai zituen, baño alpefik izan zen guzia.

LEGATEKO ARTZAIA.



Zugan, Jauna, daukagu uste osoa

!Ikasi..! !Ikasi..!



I.—Biar efiko pestak, Karmenxoren poza!
Oña! jateko ontziak txukuntzen ari da.



II.—Lanak ariñegi nai zituen egin,
Ta ara zer egin duen, topo maiarekin.




III.—Ta txalin guziak erori luñera
Ta luñean egin befeun mila puska.




IV.—Puska aiek bildu ta befiz txutitzean,
Befiz ere maia jotzen ezustean.



V.—Mai gañeko txaliñak balantzaka asi,
Bai Karmenxok azkar eutsi piloari.



VI.—Baña zer gertatu? Bere itsumustuan
Maia ta txaliñak irauli zituan.



Armenia'n apaiz bat nola il duten.

Diarbekir urian gertatu da. Apaiz katoliko onen izena Emikhamian. Paz-kotako bigarren egunean uri ortako agintariak debekatu zion bere elizkizunak egitea. Elizkizunak utzi zituen apaizak, baño aldi berean telegrama biali zion Mustafa Kemal Presidenteari, gertatu zitzaiona esanaz. Etzion barkatu eriko agintariak. Andik aste batzuetara, uri-zai (policia) ixila lagun batzuekin apaizaren etxera joan, moioia kanpora atera ta apaiza ito zuten; ito ta gero burua zantatu zioten. Bepi au zabaldu danean, asare aundiaz artu dute guziak eta itz gofoak esan ere bai, apaiz katolikoa ofela il duan agintarientzat.

Leprak jaten dituenak.

Orain bost urte, lepraz josita, Brasil'en il zan Samarata'ko Daniel Aita Kaputxinoa. Il baño lenago ikusi zutenak, ikaraturik utzi zituen bere gorputz erdi ustelduarekin, baño oso ariturik, ainbeste ofaze, itzik atera gabe, eramaten ikasi zuelako. Brasil'en eta txabola batean bizi da beste Kaputxiko bat, lñazio Mari izenekoa, lepradunai laguntzen lepraz kutsatua. Eskuak iya alperikakoak utzi dizkio. 500 kilometro inguruan ez dago beste apaizik eta arastaka bada ere, kristauai al duena laguntzen die.

Artu ta utzi ditekcan erlijioa.

¿Zein dan erlijio au? protestantiena. Ala esan du Amerika'ko protestante batek, an egin duten batzar batean. Gure Elizak, berak dionez, bere sustraiak mundu guzian bota ditu, gure apaizai ondo erakusten zaielako jakin bear duten guzia. Berak ez dute ofela erakusten; oso aldakora omen da beren apaizai erakusten zayena; gaur artu ta biyar utzi ditekcan. Onegatik protestante berak ez dezakete jakin egia dan edo ez berak ikasi ta besteai erakutsi nai diena. Jendeak au ikusten du ta ez du nai beren itza aditu, elizak utsik dauzkate. Onela itz egin du protestante ofek beren kongresoan.

[Dinamarka'ko katolikoak.

Ango izperingi edo periodiku katoliko batek dionez, Dinamarka'n 24 mila katoliko dira, 32 paroki ta 83 apaizakin. Bertako apaizak gutxi dira, 83 oyetik 17 bakarik. Monjak 740 dira ta beren gain 15 gaxo-etxe dauzkate. Katoliko-en artean batzuek an bertan jayoak dira, besteak beriz Polonia'tik joan diranak. Lenbizikoak eritan bizi dira ta bigarrenak baseitan banatuta, nekazaritzan ibiltzen diralako. Ofen banatuak bizi diralako, ezta lan efeza izaten guziaz begira-

tu ta laguntzea, beren kristau egin-beaŕak betetzen. Protestanteak gure Elizara ekartzen ez da lan aundia egiten eta ala ere azkenengo urte oyetan 200 edo urtero etofi dira.

Gurutze Santuaren jaya Albania'n.

Albania'ko mendietan bizi diran katolikoak jai aundia egiten dute Mayatzaren 3'an. Egun ontan ezdu iñork uts-egiten elizan eta sendi edo famili bakoitzak gai asko ta neuri askotako gurutze-txorta eramaten du. Amaiketan meza eman, gurutzeak bedeinkatu ta eliz-inguruan prozesioa egiten da. Geyenetaniŕeria eliza ondoan egoten da ta ara joaten dira etxeko ilak dauden tokian gurutzeak jartzerara. Etxera joaten diranean, gurutzeak jartzen dituzte belardi, soro, masti ta baratzetan, arditegiaren saŕeran, etxeko atetan eta oi-buruan.

Beljika'ko nekazari katolikoak.


Beren urteroko biŕera Bruselas'en egin dute Beljika'ko nekazari katolikoak. Nekazari talde bakoitzak bere ordezkoa bialdu du ta 2000 bildu dira. Biŕera irikitzeko meza santua entzun dute. «Boerenbond» izena du nekazarien alkar-sun onek. Joan dan urtean 121.435 sendi edo famili alkartuta zeuden. Alkartasun onek nekazariak laguntzen die ez bakarrik nekazaritza ondo eramateko jakin bear duten guzia, baita ere beren kristau eginbeaŕak ondo betetzen. Ontarako 5655 itzaldi eman ditu. Nekazariak efaztasun aundia ematen die elkartasun onek, nekazaritzarako bear dituzten gauza guziak sal-erosteko.

Txina'ko mixiolarien etsaia.

Txina'ko mixiolariantzat tifus esaten zayon gaitza eŕsai ikaragaria izaten da. Badirudi bota ezin dan gaitza dala, batez ere Txina'ko ipaŕaldean; an edo emen bada beti zerbait. Bertakoak jotzen dituenean, ez ditu iltzen geyenetan, baño mixiolariak ez die barkatzen. Scheut'eko Aita mixiolarien artean gazte asko eraman dizkie gaitz onek. Mixiolari batek dionez, tifus botatzeko asi dira Lossouarn sendagileak asmatu duan sendagaya artzen. Udaberian sei mixiolari ta monja bat artu zituen tifus'ek, sendagai ori eman zitzairen eta sei sendatu ziran; zazpigaŕena il zan, tifus'ekin batean pulmonia zuelako. Onela sendatzen baditu beste mixiolariak ere, bedeinkazio edeŕa izango da guretzat sendagai au, dio Shensi'tik idazten duen mixiolariak.

¡Emakume ta neska gaxoak!

Egunero, dio Txina'ko mixiolari batek, emakume ta neska asko eramaten ditu trenak, beste edozein gauza bezela salduta. Egun batean trenean joan beaŕa nuen eta gutxienez amabi joan ziran nerekin. Nere ondoan zijoazten erosleak eta etzuten beste gauzaz itz egin. Aleak onenbeste balio zuela, luŕak eta zaldiak ainbeste, emakumeak beriz ofenbeste, len baño pixkat garestiago. Ori, beatzarekin erakutsiaz zion, ta aldamenean daukan neska 80 dolaŕekin erosi ditut; beste neska ura 250 dolaŕekin. Erosle guziak zioten kontuz ibili bear zala, uste gabea, emakume opio-zalerik ez erosteko. Bideko geldoki edo estaziotan ere emakume ta neska asko ikusten ziran beren erosleakin trenean igotzeko zai.



Ilabete onen amairugaŕen egunean meza bat emango da «ZERUKO ARGIAREN» irakurle, ta ongile guztien alde, Antonio Santuaren aldarean.